

25 URTE... TA SEGI AURRERA

Ermuko Emakumearen Suspertzerako Zentruak 25 urte beteko ditu aurren. 1970ean jarri zen martxan, Ongarai auzoan. Handik, gaur egun dagoen lekura bi urte geroago jaitsi zuten. Franco diktadorea bizirik zegoela, Bizkaiko gobernadore zibilarren aginduz, lokala itxita egon zen denboraldi batez, baina Zentruak bere iharduera-ekin jarraitu zuen, horretarako Parrokiako lokalak erabiliz.

Hau guztiaren garrantzia ulertzeko, atzerantz begiratu beharko genuke, batzuek gogoratu eta besteek imajinatzeko, nolako herria zen gurea orain dela 25 urte. Neurri gabeko hazkundeak sortutako arazoak asko eta era askotakoak ziren. Goizetik gauera, zentzugabeko eraikuntza multzo bihurtu zen Ermua, oinarritzko zerbitzurik gabeko lotarako herri, planifikazio ezaren eredu. Osasun Zentrua, kaletako argia, ikastetxeak, berdeguneak, Nagusien Etxea, haurtzaindegia, liburutegia, Gaztetxea, polikiroldegia, kultur etxea, eta abar, ametsak baino ez ziren. Kontutan hartzekoa da baita ere, nolako gizartea zen, zer onarpen maila zuten emakumeek, lan munduan, ikasketetan, bizitza publikoan, eta orohar, etxeko eremu pribatutik kanpo izaten diren ekintza eta iharduera guztietan. Egia da, emakume askorentzat egoera ez dela gehiegi aldatu, baina urtetako borrokari esker, egun, emakume batzuek dutena, hau ere, ametsa zen duela 25 urte familia eta etxearen arduradun bakarra baizik ez ziren emakume ia guztientzat.



Emakume talde bat Martxoak 8aren ekitaldi bat ikusten.

SANTOS VEGA

Dudarik gabe, honi guztiari erreparaturaz, hobeto baloratuko dugu Zentruak 25 urte hauetan Ermuko emakumeentzat, eta beraz, herri osoarentzat egindakoa.

Mende laurden beranduago Zentruak bi urteko ikastaroak antolatzen jarraitzen du. Ikastaro hauetan zenbait gai lantzen dira, hala nola, gorputzaren ezagutza, artea, herriaren antolakuntza, eskulanak, harremanak, antzerkia, jostungintza... eta abar. Astelehenetik ostegunera egiten diren ikastaro hauez gain, urte luze hauetan Zentruko ikasle izandakoek osatzen duten taldeak ere bere ekintzak antolatzen ditu; esate baterako, hilaren lehen zein azken ostiralero hitzaldiak izaten dituzte, interesatzen zaizkien

gaietan adituekin, Emakumearen Udal Kontseiluan parte hartzen dute, eta herriko zenbait taldereko harremanaren ondorio dira azken hilabete hauetan Txindurriko monitoreekin egiten ari den jota ikastaroa, duela bi urtetik hona AEK euskarategian euskaratik ikasten diharduten bi emakume taldeak eta hain arrakastatsua den Izarraitz antzerki taldea, Zentruko emakumez osatua.

Emakumearen Suspertzerako Zentruaren 25. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu da, maiatzaren azken bi asteetan, eta hauen berri ematen dizuegu aldizkari honetako agendan.

Manuel Moreno

MUGA



KIRLOAK

SEXTO CENTENARIO, 7
Teléfono 17 64 77
ERMUA

JATETXE-BAR

ZUKUSU

EUSKAL SUKALDARITZA
Jaunhartzekak, Bataioak, eta abar

Gipuzkoa Etorbidea, 8 • ☎ (943) 17 00 18 • ERMUA

